

ANALISIA



Jaka horiak eta ideologiak



Mikel Asurmendi

@masurmendi

Gilets Jaunes du jatorrizko izena. Fenomeno eta espresio sozio-politiko berria da. Jaka edo Txaleko Horiak izendatu ditugu euskaldunok. Frantziako Estatu inarrosi du, baita Errepublikaren baloreak ere. Olde hori batek Hexagonoaren kolore gorri-txuri-urdina estali du bospasei astez.

Ideologiak koloretan bereizi ditugu antzinatik. Monarkia, koloregabea, euren odolaren urdinak bereizi izan du. Urdina da, hartara, eskuindarren kolore bereizgarria. Gorria ezkerren kolorea da. Beltza, berriz, anarkistena. Berdea, ekologistena. Zientziaren aurrerapenak eta teknologia-aren garapenak koloreak marguldu dituzte, baita ideologiaren koloreak ere.

Iraganeko ideologiaren kolore solidoa urtzuz joan da eta likido bihurtu. Ezein ideologiaren estandarteak nekez airera dezake kolore bakar bat duintasunez. Mugimendu feministaren kolorea mo-rea da egungo kolorerik esanguratsue- na, salbuespena apika. Oro har, kolore zuria da eskuindar eta ezkertiar klasi-koen ideologia hobekien ezaugarritzen duena. Egungo ideologiak, abantzu guz- tiak, zuriak dira, hots, hipokritak.

Gure historia berriaren ideologie- tan, kolore horia ez da zuritik arrunt

ezberdindua izan. Gogoratu ditzagun iraganeko sindikatu horiak, enpresari- en menpekoak. Espainia aldean *sindicatos amarillos*, Frantzia, *syndicats jaunes*. Bada, hauxe paradoxa: *Syndicalisme jau- ne* Frantzia sortu zen XVIII. mendearen amaieran.

Jaka Horiak mugimendua berezia da, berezia denez, jendartearen adierazpide berria. Errebolariak izan gabe, ia guz- tiok jantzi dugu inoiz jaka horia, hau da, errepideko zirkunstantziak direla medio legeak janztera behartuta egon gara.

Fenomenoa bitxia da inondik ere. Teo- rian enpresa boteretsuek egungo nor- banakoak –masa-sozial bereziak– kon- trolatzen dituzte sare sozialen bitartez, eta paradoxikoki hau ere, sare sozialek posible egin dute egungo errebolta.

Frantziako Estatuak, Macron buru, ez du mugimendua aintzat hartu nahi, Jaka Horiak ez baitaude ezein alderdik ez sindikatuk kontrolatuta. Mugimendua ez da egungo demokraziaren arauen barnean ari. Areago, errebolariak, al- dez edo moldez, estatuak “aintzakotzat” hartzen duen lengoia bakarra, bor- txaren lengoia dela demostratu dute –errebolariak, berriz ere–. Tamalez, historia errepikatzen da. Alabaina, ez da beti modu berean errepikatzen. Gaur egun, inork ez daki mundu berriaren bi- lakabidearen berri. ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Mobilizatzea beti da eraginkorra



Juan Mari Arregi

Ez dira gutxi uste dutenak langile eta herritarren mobilizazioek, grebek, okupazioek, baraualdiek, itxialdiek... ez dutela ezertarako balio. Eta argudio horri helduta, justifikazioa aurkitzen dute antolatu ohi diren mobilizazio edo grebekin bat ez egiteko edo kalera ez ateratzeko euren eskubideak aldarri- katzera. Ez da horrela. Greba egitea, nonbait ixtea, enpresak eta instala- zioak okupatzea eta kalean manifesta- tzea, azken batean mobilizatzea, beti da eraginkorra. Ez soilik gure duintasuna babesten dugulako, epe motzera nahiz luzera begira helburu eta aldarrikapen asko ere lortzen direlako baizik.

Azken garaiotan, hainbat mobili- zazioren artean, pentsionistena na- barmentzen ari da Hego Euskal Her- rian eta Espainiako Estatuan, baita Jaka Horidunen mugimendua ere Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan. Pentsionisten kasuan, go- bernuak mugiarazi dituzte: pentsio baxuenak igotzeaz gain, besteen eros ahalmena eguneratu behar izan dute. Euskal pentsionistek dagokienez, as- koz urrunago joan dira eta ia lortze- kotan egon dira euren pentsioak osa- tzeke oinarritzko igoera bat. Baina EAJ eta EH Bilduren arteko negoziatioak hautsita, 2018ko EAerako aurrekon- tuen luzapena etorriko da. Egoera horrek pentsionistak bultzatuko ditu beren mobilizazioak biderkatuz, joan den asteburuan egin zuten mo- duan. EAJ eta EH Bilduren arteko ten- tsioa mobilizazio horiek sortu dute, hain zuzen. Jaka Horidunekin, berriz, Frantziako Gobernuak president- te Emmanuel Macronek 100 euroko igoera egin behar izan du gutxieneko soldatan, baita beste neurri batzuk hartu ere, nahiz eta oraindik ez da- kigun nahikoak izango diren tentsio sozialek baretzeko.

Mobilizatzea, bai, beti da efikaza. Ez ordea eskirola izatea edo etxean geratzea eskuak gurutzatuta, besteak kalean dauden bitartean. ■